

**ERABAKIA, IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN ARLOKO
ERREKTOREORDEARENA, 2025ko AZAROAREN 14koa, ZEINEK EPEA
IREKITZEN BAITU IRAKASLEEN ETA IKERTZAILEEN LAN POLTSAK
OSATZEN DITUZTEN PERTSONEK LAN AUKERAK ALDA DITZATEN**

2024ko ekainaren 12ko erabakiaren bidez, lehiaketa publikorako deialdia egin zen irakasleak eta ikertzaileak ordezkatzeko lan poltsetan sartzeko.

Erreferentzia poltsak erabiltzen ari dira, 2025eko uztailaren 2ko Ebazpenaren bidez deitutako lan poltsak ebazten diren bitartean.

Horregatik guztiagatik, honako hau

ERABAKI DUT

Erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik **2025ko azaroaren 24ra** arteko epea irekitzea, lan poltsetan dauden pertsonek nork bere lan aukerak alda ditzaten.

Aurreko ondorioetarako, "Lan eskaintzen atariaren" bidez egin beharko dute, "Zure eskariak" menuan, "Aukerak aldatu" botoiarekin. Horretarako, irakaskuntza zein hizkuntzatan irakatsi nahi den hautatu beharko dute, bai eta zein campusetan eta zein arduraldi baliatu nahi den ere, eta "Datuak gorde" sakatu. Pantaila horrek aukera ematen du adierazitako epearen barruan nahi beste aldiz aldatzeko, epea amaitu ondoren geratzen den aukera baino ez delarik baliozkoa.

Garrantzitsua da jakitea, eskaera eginez gero, hasierako aukerak zein hizkuntzak bertan behera geratu eta pantaila honetan gordetako aukerak egongo direla indarrean.

Hautagaiak zein hizkuntzatan irakatsi nahi duen egiaztatu ez badu orain arte, lehen aipatutako epearen barruan bidali beharko du dagokion titulua bolsas-pdi.convocatorias@ehu.eus helbidera, gaian "HIZKUNTZAK EGIAZTATZEA" jarritz eta lan eskaintzen atarira sartzeko identifikazio zenbakia adieraziz.

Leioan, 2025ko azaroaren 14an.

ERREKTOREA

Eskumenak eskuordetuta (Ebazpena, 2025eko urtarrilaren 30ekoa, errektorearena; 2025-02-19ko EHAA)

Irakasle-ikertzaileen errektoreordea,
EFREN ARESKURRINAGA MIRANDONA